

"Miraria zirudien!". Egunkariaren sorreran bidelagun izandako Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka gogoratu zituen Martin Ugaldek

Imanol Murua Uria

Euskaldunon Egunkaria, 1999-12-16: 17.

Idazle gisa ezaguna bada ere, bere burua kazetaritzat duela esanez hasi zuen hitzaldia Martin Ugaldek. Idaztea eta euskaraz hitz egitea debekatzen zuten garaia bizitzea egokitu zitzaion, "idazteko errebeldia" amaren komunikaziorako "doain naturalari" zor diola aitortu zuen. Aita euskaldun hutsa izanik ere, etxean *El Día* eta *Euzkadi* hartzen zituztela gogoratu zuen: "Orduko gure herriko kazetak erderetako eskolak ziren!".

Garai hartan ezina izan zen "kazetaritza euskalduna" gauzatzeko *Euskaldunon Egunkariaren* sorreran egindako lana ekarri zuen gogora ondoren: "Neroni tartean nintzela euskaldun erdaldundutako eta euskal kazetaritza gabeko, euskaldun gazteez inguratuta, horien errebeldia eta arrazoiak ematen duen adorearekin, honen anparoan, ausartu nintzen enpresa honetan sartzen orain hamar urte, eta sosik gabe, Mezenas baten bila, edo diru pixkakako asko! Hori bai, dirudik gabeko herri osoa zetorren bultzaka. Miraria zirudien!".

Euskarazko egunkariaren sorreran bidelagun izandako Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka aipatu zituen Ugaldek –"ongi merezia dute aipamena"–, eta Zumalabek hilzorian zegoela idatzi zion gutuneko pasarte bat irakurri zuen. "Maitasun handia behar da gaurko egunean edozein hizkuntzetan lehen aldiz egunkari bat sortzeko", esan zuen Ugaldek, Zumalaberen hitzak gogoan. "'Maitasun baten historia' izan daiteke egokia euskarazko kazetaritzaren historia laburtxo honi izena emateko".

EHUrentzat izan ziren Ugalderen azken hitzak: "Lorpen ederrak egin baditu ere, euskararen jauzi handi baten behar gorrian dago. Hau saiatzeko ordua heldu da! Itxaropenaren ondoren, ekintza beti!".